

Euskal Herriko laborantza gida 1.0

2005eko uztaila

ARLO KONTZEPTUALA

SUSTATZAILEA:



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

EGILEA:



OHARRA:

Lan honek nekazaritza edo laborantzak bere baitan hartzen duen eremu kontzeptuala zein den zedarritu nahi du. Ariketa hau garrantzitsua da laborantzari buruzko ikerketa orokor bat egin nahi denean.

Laborantzako Gida 1.0 egiteko lehenik ezinbestekoa gertatu zitzaigun zein kontzepturi erreparatu behar genion argitzea ondoren bibliografia, eragiketa estatistikoak, web edukiak... bilatzen hasteko.

ARLO KONTZEPTUALA

1.1 DEFINIZIOA

Ez da gauza erraza laborantzan diharduten eragile guztiak aseko dituen definizio bat adostea. Nazio Batuak nekazaritzarako eta elikadurarako duen erakundeak berak, FAOk, muzin egiten dio nekazaritzaren definizio bat planteatzeari, definizioak berak, nekazaritzaren alorrean diharduten eragile batzuen edo besteen mesedetan gerta litezke eta. Hiztegi arruntek ere ez digute argi askorik ematen.

Guri dagokigunez, eta lan honen xedea ezagututa, argi dugu definizio zabala behar dugula, nekazaritza mota eta jarduera guztiak bildu ahal izango dituen. Ildo horretako definizio eta azalpen baliagarriak aurkitu ditugu wikipedia entziklopediaren (www.wikipedia.org) ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko edizioetan:

- INGELESEZko edizioan:

Agriculture is the process of producing food, feed, fiber and other desired products by the cultivation of certain plants and the raising of domesticated animals (livestock). The practice of agriculture is also known as farming, while scientists, inventors and others devoted to improving farming methods and implements are also said to be engaged in agriculture.

More people in the world are involved in agriculture as their primary economic activity than in any other, yet it only accounts for four percent of the world's GDP.

- FRANTSESEZko edizioan:

L'agriculture (du latin agricultura) est l'ensemble des activités économiques ayant principalement pour objet la culture des terres, et d'une manière générale « l'ensemble des travaux transformant le milieu naturel pour la production de végétaux et d'animaux utiles à l'Homme ».

Dans le domaine de l'économie agricole, l'agriculture est définie comme l'ensemble des activités dont la fonction est de produire un revenu financier à partir de l'exploitation de la terre (cultures), des forêts (foresterie), des produits de la mer, lacs et rivières (aquaculture, pêche), des animaux de ferme (élevage) et des animaux sauvages (chasse).

L'homme est devenu culturellement omnivore il y a environ 3 millions d'années et a vécu de la chasse, de la pêche et de la cueillette pendant des milliers d'années. Si la collecte de graines sauvages a commencé il y a 23000 ans en Israël, l'agriculture proprement dite est apparue entre le VI^e et le I^{er} millénaire avant J.-C. Elle a ensuite profondément évolué au cours des siècles, grâce à son adaptation aux conditions naturelles, à la mise au point de nouvelles techniques agricoles (la houe, la herse) et nouveaux produits chimiques (les engrais minéraux, les produits phytosanitaires), et à l'introduction de variétés améliorées (voir amélioration des plantes).

L'agriculture diffère de l'agronomie, laquelle représente l'ensemble des connaissances scientifiques, économiques et sociales auxquelles il est fait appel pour comprendre l'agriculture dans toutes ses dimensions.

- GAZTELANIAZko edizioan:

La agricultura es el proceso de producir alimento u otros productos mediante el cultivo de ciertas plantas y la crianza de animales domésticos.

La agricultura tiene una gran importancia estratégica como base fundamental para la autosuficiencia y como base de la riqueza de las naciones.

Horietan oinarrituta, hona hemen euskaraz LABORANTZA edo NEKAZARITZA terminoentzat proposa dezakegun definizioa¹:

Landare eta hazien landaketaren bitartez eta etxeko animalien hazkuntzaren bitartez jendartearentzat erabilgarriak diren elikagaiak, landareak, zuhaitzak eta zuntzak ekoizteko prozesuari deitzen zaio laborantza (edo nekazaritza) zentzu zabalean. Horretarako ezinbesteko baliabideak lurra, ura, airea, haziak, eguzkia eta lana dira.

Definizio honi beste ezaugarri zehatz batzuk gehitzen zaizkio nekazaritza ereduaz hitz egiten denean. Eredu nagusiak bi dira: *Laborantza Industrial*a eta *Etxaldeko Laborantza*. Baina badira beste hainbat ere: ekologikoa, iraunkorra, hidroponikoa, organikoa eta abar. Hala ere, oraingoz, eredu bati edo besteari traba egingo ez dion definizio zabal horri eustea deritzogu egokiena.

1.2 GAIEN ZERRENDA

Euskal Herriko laborantza sektoreaz hitz egiten dugunean, maiz ez gara iristen *laborantza* kontzeptuak bere barruan biltzen dituen esparruak zehaztera. Beraz, atal honetan aurkibide baten moduko zerrenda osatu dugu. Ez da proposamen itxia, Euskal Herriko laborantzaren sektoreko aldagaiak zehazteko ahalegina baizik. Hurrengo lerroetan aurkeztuko dugun gai zerrenda hau lehenengo bertsioa da, eta, beraz, osatu egin beharko da. Hasiera batean, nekazaritza zentsuetan, hainbat nekazaritza urtekaritan, hainbat tesaurotan eta abarretan oinarriturik, gaien zerrenda bat osatu genuen. Eragileekin izandako elkarrizketei esker, zerrenda hori aberastu egin ahal izan dugu. Gai orokorretan sailkatu dugu. Halaber, gai orokor bakoitzean zenbait azpiatal barneratu ditugu, eta gai orokorrak hainbat gai zehatzagotan banatu. Hala ere, azpimultzo horiek ere nahiko orokorrak dira; azpiatal bakoitza ere sailkatu ahal izango litzateke. Oraingoz, lehenengo bertsio honetan, gai orokor horien zerrenda aurkeztuko dugu. Aurkibide hau tarteka aberastu eta birformulatu egin beharko da, euskal laborantza sektorearen unean uneko errealitatera egokitzearen. Era horretan, Euskal Herriko nekazaritzaren errealitatea modurik egokienean ezagutu ahal izateko, ikertu beharreko oinarritzko alderdiak zeintzuk diren jakingo genuke.

Honako hau da proposatzen dugun aurkibidea:

A / INGURUNE FISIKOA ETA KLIMATOLOGIA

- 1) INGURUNE FISIKOA ETA LURRALDEA
- 2) METEREOLOGIA
- 3) SUTEAK
- 4) HIGATUTAKO GUNEAK, LURPEKO UREN EGOERA

B / DEMOGRAFIA ETA JENDARTEA

- 5) DEMOGRAFIA ALDERDIAK
- 6) JARDUERAREKIN HARREMANA DUTENAK
- 7) ERRETIROA HARTUTA DAUDEN PERTSONEN PENTSIOAK

C / EKOIZPENA

- 8) NEKAZARITZA - USTIATEGIEN KOPURUA, AZALERA ETA TIPOLOGIA
- 9) NORTASUN JURIDIKOA ETA USTIATEGIEN KUDEAKETA
- 10) LURRA DUTEN USTIATEGIAK
- 11) ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK
- 12) BASOKO ZUHAITZ ESPEZIEAK
- 13) NEKAZARITZA MAKINAK

¹ *Nekazaritza* eta *Laborantza*, sinonimo gisa erabili ditugu bi hitzok txosten honetan.

- 14) USTIATEGIEN OTEa (Orientazio Tekniko-Ekonomikoa)
- 15) USTIATEGIAN EGINDAKO LANALDIAK (ESKULAN FAMILIARRA)
- 16) USTIATEGIAN EGINDAKO LANALDIAK (ESKULAN EZ FAMILIARRA)
- 17) ULUak (URTEKAKO LAN UNITATEAK) USTIATEGI BAKOITZEKO
- 18) ENUak (EKONOMIA NEURRI UNITATEAK) USTIATEGI BAKOITZEKO
- 19) LURRAREN SALNEURRIAK
- 20) NEKAZARIAK JASOTAKO PRODUKTUEN SALNEURRIAK
- 21) MAKROMAGNITUDEAK
- 22) BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN SOLDATAK
- 23) SASOILARIAK
- 24) USTIATEGIEN URTEKO ETEKINA
- 25) NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA
- 26) KANPO-MERKATARITZA
- 27) NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
- 28) NEKAZARITZA EKOIZPEN INTEGRATUA
- 29) TEKNOLOGIA BERRIAK
- 30) ERABILITAKO INSUMOAK: KOPURUAK ETA KOSTUAK

D / NEKAZARITZA PRODUKTUEN MERKATURATZEA ETA KONTSUMOA

- 31) EKOIZPENAREN ERABILERA ETA MERKATURATZEA
- 32) KALITATEZKO BEREIZGARRIA DUTEN PRODUKTUAK: LABELA DUTEN PRODUKTUAK, JATORRI IZENA DUTEN PRODUKTUAK

E / ESPARRU POLITIKOA ETA ELKARTZE FENOMENOA

- 33) LEGERIA ETA EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZAN ERAGINA DUTEN PLANAK
- 34) NEKAZARITZAK JASOTZEN DITUEN LAGUNTZAK
- 35) ABELTZAINZTA ETA NEKAZARITZA ELKARTEGINTZA

Hona hemen, amaitzeko, zerrenda hori lantzerakoan kontuan hartu beharreko hiru funtsezko irizpide:

- Posible den guztietan, aztertu beharreko faktore, aldagai edo dimentsioetan, denborazko serieak ezartzea izango litzateke aproposena, gai bakoitzaren bilakaeraren diagnosiak egin ahal izateko. Hots, hor aipatutako gaien inguruko 'azken argazkia' ez ezik, azken urte, hamarkada edo mendeetako bilakaera aztertzea ere komeniko litzateke. Horrek, halabeharrez, eskatuko digu informazio sortzaileek, denbora pasatu ahala, kontzeptu edo kategorietan egindako aldaketak ere aztertzea eta azterketa bera horren arabera ere moldatzea.
- Era berean, ahalegin berezia egin beharko da Euskal Herriko informazioa ez ezik, herrialde, eskualde, udalerrri eta are unitate txikiagoei buruzko informazioa ere eskuratzeko eta aztertzeko. Bestela, datu orokorrek errealitate bereziak ezkutatzeko arrisku larria jasango genuke eta.
- Azkenik, belaunaldi eta genero diagnosi bat egin ahal izateko, pertsonen dagokien gaitan, informazio guztia adin eta sexuaren arabera jasotzea eta aztertzea komeni da, datu orokorrek herritar multzoek ageri dituzten egoera bereziak estal ez ditzaten.